



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko irailaren 22an

71 ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Cidacos ibaiaren Tafallan zeharreko ibilgua dragatu eta garbitzeko jarduketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Iruña, Lodosa, Tafalla, Zangoza, Ekai eta Bidasoa ibaiaren inguruan kutsaturiko lurren kontrol eta jarraipenari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Nafarroako Ehizarako Plan Estrategikoa onesteko prozesuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- “Hirugarren adineko zentroyen obra eta ekipamenduetarako transferentziak enpresei” izeneko 99006-0 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Gure Komunitateko komunikazio-bideetako seinaleetan dauden inskripzio eta marratzei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Nafarroa ekaitzen kalteak konpontzeko Estatuak ezarri laguntzetara bildu ezinari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Nafarroako Administrazio Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko aurreikusi diren jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Enplegua sortzeko plan industrialaren egiteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Enpleguaren egonkortasunaren eta hitzarmen kolektiboen alde estatu mailan sinatu den akordioa bultzatzeko egin diren jarduketei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Nafarroan instalatuta dauden enpresetan kontratu mugagabeak bultzatzeko berariazko neurriei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina, lanbide-ordainsariak direla-eta, ingeniari, arkitekto eta aparejadorei egin zaizkien ordainketei buruzkoa (13. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

- 1998ko uztailan egindako bilerak (17. or.).
- 1998ko uztailan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (17. or.).
- 1998ko abuztuan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (24. or.).

F saila:
GALDERAK

Cidacos ibaiaren Tafallan zeharreko ibilgua dragatu eta garbitzeko jarduketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Cidacos ibaiaren Tafallan zeharreko ibilgua dragatu eta garbitzeko jarduketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apestegúa

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Cidacos ibaiaren Tafallan zeharreko ibilgua dragatu eta garbitzeko jarduketei buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Aipatu ibilguan buruturiko lanak Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren baimenarekin egin al dira?

Ingurugiro Zuzendaritza Nagusia (Natura Zaintzeko Zerbitzua) ari da ikuskatzen gaur egun burutzen ari diren lanak, eta lanen zuzendaritza teknikoaz Zerbitzu horretako pertsonala da arduradun.

2.- Egun burutzen ari diren lanei ekin aurretik egin al dira aurreiazko azterlanak?

Egun burutzen ari diren lanen oinarria Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiko teknikariek eginiko balioetsitako oroitidazki tekniko bat eta Tafallako udal arkitektoak eginiko aurreiazko txostena dira.

2 (bis).- Basa lanen ondoriozko ingurugiro-eraginak garrantzitsutzat har daitezkeela uste al du Nafarroako Gobernuak? Erantzuna baiezkoa zein ezezkoa dela ere, zergatik?

Egiten ari diren lanak garrantzitsuak dira Cidacos ibaiaren ibilguaren gaurerungo egoera dela eta, ibai horretan gutxi gorabehera azken 15 urtetan ez delako makineria bidezko garbiketa edo mantenimendurik egin. Dena den, burutu diren jarduketak, batez ere ibilgua bera ukitzen dutenak, puntualak izan dira: zeukaten egoeraren ondorioz ur-etorri handien garaian urak gainezka errazago egiten zuen puntuetan bakarrik esku hartu da.

Landaredia kentzeari dagokionez, landare-moten arabera egin da: espezie autoktono ia guztiak errespetatu dira, eta kendu direnak batez ere makalak, zuhaiskak eta uraren jarioa eragozten zuten hildako zuhaitzak (zumarrak) izan dira.

Beraz, egindako jarduketak garrantzitsuak izanik ere, teknikarientz ez dute ingurugiroan eragin seriorik, eta jarduketa horiek burutzea guztiz beharrezkoa da, azkenaldi honetan ibaiak urak gainezka egin eta herriguneko bertako hainbat alde ur azpian geratu izan direlako.

3.- Nafarroako Gobernuak inguru hori babestu eta leheneratzeko jarduketarik burutzea aurreikus-ten al du? Zeintzuk?

Lanak bukatu ondoren Ingurugiro Zuzendaritza Nagusiak jarraipen bat egingo du garrantzi handieneko jarduketak izan dituzten zona zehatzen leheneratzeari dagokionez. Egokiak diren neurriak hartu ahal izango dira alde horiek nola erantzuten duten. Erantzun horretan eragin nabaria izan dezakete ur-etorriaren gorabeherak, bereziki neguko sasoiari, obrak bukatu berriak baitaude.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 17an.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Iruña, Lodosa, Tafalla, Zangoza, Ekai eta Bidasoa ibaiaren inguruan kutsaturiko lurren kontrol eta jarraipenari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Iruña, Lodosa, Tafalla, Zangoza, Ekai eta Bidasoa ibaiaren inguruan kutsaturiko lurren kontrol eta jarraipenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Iruña, Lodosa, Tafalla, Zangoza, Ekai eta Bidasoa ibaiaren inguruan kutsaturiko lurren kontrol eta jarraipenari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zer enpresa, entitate edo erakunderi esleitu zitzaizkion aipatu lanak? Zer esleipen-preziotan?

Bidasoa ibaiaren inguruko bi lursailen kutsadura kontrolatu eta berorren jarraipena egiteko lanak Covitecma enpresari esleitu zitzaizkion, helbidea Madrilen zeukana, Agustín de Foxá kaleko 25. zenbakian. Esleipenaren zenbatekoa 6.857.650 pezeta zen.

Iruña, Lodosa, Tafalla eta Ekaiko lur kutsatuen kontrol eta jarraipenerako lanak Emgrisa enpresari esleitu zitzaizkion. Enpresa horren helbidea hauxe da: Los Olivos industrialdea, Andaluziako errepidea, 12. kilometroa, Getafe (Madril). Esleipenaren zenbatekoa 10.085.156 pezeta da.

2.- Aipatu herrietako lurzoruko kutsatuen kutsaduraren kontrol eta jarraipenerako lanen emaitzak aurkeztu al dira Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuan? Noiz?

Bidasoa ibaiaren inguruan kutsaturiko bi lursail letako kutsaduraren kontrol eta jarraipenaren emaitzak aurrerapen batean eman dira, 1997ko abenduaren 16an. Behin betiko emaitzak aurkezterakoan izandako berandutzaren zergatia hauxe da: arrainen lagin-hartze bat egingo da, euren

ehunetako metal-edukia zehazteko, eta lagin-hartzea errunaldia igaro ondoren egingo da.

Beste kokaguneetako lur kutsatuen kontrol eta jarraipenaren emaitzak 1997ko urriaren 9an aurkeztu zituen Emgrisak.

3.- Horietako bakoitzerako esleipendun gertatu den enpresa, entitate edo erakundeak bidalitako dokumentazioak zein ondorio zehatz eskaintzen du? Jarduketa-prozedura horiek jarri al dira abian?

Emgrisaren azken txosteneko ondorio eta gomendioek, funtsean, behinola eginiko karakterizazio-proiektukoak egiaztatzen dituzte, eta argiago uzten dute plubiometriaren eta lur azpiko uraren kutsaduraren artean dagoen erlazioa.

Lodosaren kasurako, antzemandako kontzentrazioek egiaztatu egiten dute kokagune hori deskontaminatzeko dagoen beharra, eta, baita ere, lurpeko ura ez dela giza-kontsumorako eta nekariztarako erabili behar.

Halaber, Iruñeari dagokionean, esku hartzeko beharra egiaztatua geratu da, eta horren premia lurzoru eta uraren erabileraren araberakoa izango da, aurreko kasuan bezalaxe.

Tafallari dagokionean, kontrola areagotzea gomendatzen da, kutsagaien bilakaera nolakoa den ikusi ahal izateko.

Zangoza eta Ekaiko kokaguneei dagokienez, bertan lurpeko urak garrantzizko eraginik jasan izanaren arrastorik ez dago, eta beste neurri batzuk erabaki aurretik kontrola mantentzea gomendatzen da.

Lorturiko emaitzak titularrei eta kasuan kasuko udalari jakinarazi zaizkie, beharrezkoak diren neurriak har daitezten. Horretaz gain, gaur egun indarrean dagoen araudiak izan ditzakeen ondorioak eta horiei aurreikusten zaien bilakaera ikuspegi juridikotik aztertuak izaten ari dira. Indarreko araudiak esparru honetan hutsune nabariak dituela esan behar da.

Bidasoa ibaiaren ingurunekeo kutsadura kontrolatzeko lanei dagokienez, iritsitako ondorioak behin-behinekoak dira, lanak behin betiko bukatu bitartean. Orain arte iritsitako ondorioen arabera, kutsagaien uretako kontzentrazioak ez dira kezkatzeko modukoak lurrazaleko urei buruzko legediarekin konparatuz gero. Jalkinei dagokienez, horie-

tan kutsadura-sorburuek eragina izan dutela antzeman da, baina sorburuen inguru hurbiletara mugaturikoa.

Edozein kasutan, alde horretako faunak kalteak jasan dituela baztertzeko, arrainen lagin-hartze eta analisi kanpaina bat egingo da aurki.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 19an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Nafarroako Ehizarako Plan Estrategikoa onesteko prozesuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Ehizarako Plan Estrategikoa onesteko prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko azaroaren 28ko 82. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ehizarako Plan Estrategikoa onesteko prozesuari buruz. Hona Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak Ehizarako Plan Estrategikoaren (1997-2000) aurrerapena onetsi ondoren Kontseilariak proposatzen zuen lantaldea bildu al da? Zenbat aldiz? Nortzuk osatzen dute lantalde hori eta zein entitate, elkarte edo erakunderen izenean?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak, besteak beste, bilerak egin ditu talde kontserbaziozaleekin eta Ehizarako Batzorde Aholkuemailearekin, Ehizarako Plan Estrategikoari (1997-2007) buruzko azalpenak emateko.

Bi horietan, kontserbaziozaleei eta ehiztarien ordezkariari interesa agertu zitzaizkien euren artean

lan-bilerak egin zitzaizkien, talde bakoitzaren iritzia kontrajarri ahal izateko. Proposamen horren ondorioz aipatutako bi sektoreek inolako ekimenik izan ez dutenez gero, talde kontserbaziozaleen eta Ehizarako Batzorde Aholkuemailearen ordezkarien arteko bilkura baterako deia egin da. Bilkura hori abenduaren 22an egingo da, Departamentuko Batzar Aretoan.

2.- Ehizarako Plan Estrategikoari buruzko zenbat alegazio, proposamen edo iruzkin entregatu dira? Zein entitatek, elkarte edo erakundeek egin dituzte?

Ehizarako Plan Estrategikoaren jendaurreko informaziorako epea 1997ko abenduaren 13an amaitu zen, baina zein garaitan gauden kontuan edukiz, egoki iruditu zaigu egun batzuk gehiago itxarotea eginiko iradokizun guztiak jasotzeko. Horregatik, Kontseilari honek, eragozpenik ez baduzu, eskaturiko informazio guztia urtarrilaren 10a baino lehenago emateko konpromisoa hartzen du.

3.- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Ehizarako Plan Estrategikoa Nafarroako Parlamentura igortzeko, izapida eta onetsi dezan? Noizko aurreikusitako igorriko diola?

Bai, Nafarroako Gobernuak badu asmoa Plana Parlamentuari igortzeko, 1998ko lehen hiruhilekoan.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 15ean.

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

“Hirugarren adineko zentroen obra eta ekipamenduetarako transferentziak enpresei” izeneko 99006-0 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak “Hirugarren adineko zentroen obra eta ekipamenduetarako transferentziak enpresei” izeneko 99006-0 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko urriaren 21eko 67. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 29an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeko Reyes Cortaire Tirapu Foru Parlamentari andreak idatziz erantzuteko galdera egin du “Hirugarren adineko zentroen obra eta ekipamenduetarako transferentziak enpresei” izeneko 99006-0 aurrekontu-lerroaren betetze-mailari buruz. Hona Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zenbat bete da aurrekontu-lerrotik eta zer kopuru erabil daiteke aipaturiko kontusailetik?

2.- Zer zentrotan esku hartu da eta zer kopuru-ekin?

3.- Zer nolako lana egin da horietako bakoitzean?

4.- Zer enpresak burutu dituzte obra edo ekipamenduak?

“Hirugarren adineko zentroen obra eta ekipamenduetarako transferentziak enpresei” izeneko 99006-0 aurrekontu-lerroari dagokionez, erantzunaren egunean 9.170.460 pezetako dirulaguntza bat hitzartu da, Apartamentos Tutelados Leyre, SLren obra-zuzendaritzaren ondoriozko ordainsari kontzeptuan.

Gaur egun, 1997ko ekainaren 3an onetsi zen Plan Gerontologikoa abian jartzeak beharrezko egiten du lagundurikoentzat 560 postu inguru sortzea Iruñerrian, errolda berria onetsi ondoren. Horren ondorioz, enpresa-ekimena postuak sortzeko eskaintza garrantzitsua ari da egiten, eta, gaur egun, hori izapidatzen, aztertzen eta ebaluatzen ari da Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentua.

Hori guztia jakinarazi dizut bidezko ondorioetarako.

Iruñean, 1997ko abenduaren 16an

Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Kontseilaria: Calixto Ayesa Dianda

Gure Komunitateko komunikazio-bideetako seinaleetan dauden inskripzio eta marratzeei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak gure Komunitateko komunikazio-bideetako seinaleetan dauden inskripzio eta marratzeei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko aabenduaren 9ko 83. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du gure Komunitateko komunikazio-bideetako seinaleetan dauden inskripzio eta marratzeei buruz. Hona Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilariaren erantzuna:

1.- Nafarroako Gobernuak zenbatetsia al dauka Nafarroako komunikazio-bideetako seinale elebidunen aurkako eraso hauen norainokoa? Zein alde kaltetu dute gehien?

Norainokoa ez dago zenbatetsia, ezta konponketaren kostua ere, seinale bertikalen mantentzen urteroko kontratuen barnean sarturik dagoelako seinale bertikalak ordeztzea. Alde guztiak kaltetu dituzte, hala euskaldunak nola mistoak, eta askoz gutxiago eskualde ez-euskaldunak.

2.- Nafarroako Gobernuak jarduketarik burutu al du horrelakoen egileen aurka? Nafarroako Gobernuaren ustez, egintza horiek antolatu egiten al dira?

Ez du inolako jarduketarik burutu. Printzipioz, egintza horiek antolatu gabeak direlakoan dago.

3.- Nafarroako Gobernuak ba al du borondate-rik seinale bertikalak lehen bait lehen garbitu edo ordezteko, berriro seinale elebidunak izateko?

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak, seinale bertikalak kaltetzen dituzten pintadak egin direla jakin bezain laster, garbitu egiten ditu, eta, hainbat garbiketa egin ondoren isladagarritasuna galtzen baldin badute, ordeztu egiten ditu.

4.- Aipatu seinaleak garbitu edo ordezteko lanak nola eta zer bitartekorekin burutzen ditu edo burutzeko asmoa du Nafarroako Gobernuak?

Garbitu eta ordezteko lanak bitarteko berekiekin egiten dira (mantenimendu-zentroetako brigadak), eta distrituetako bide-seinaleen mantentzen kontraturik daukaten enpresen bitartez ere bai.

5.- Nafarroako Gobernuak positibozat jotzen al du bai gaztelaniaz bai euskaraz Nafarroako herrien eta leku historiko zein naturalen izenen berri ematen eta horiek ezagutzea sustatzen duten seinale elebidunak egotea? Nafarroako eremu euskaldun eta mistoko errepideetan eta bestelako leku berezietan, gure kultur aniztasunaren eta Foru Komunitateko hizkuntza-ondasunarekiko errespetuaren agerpide gisa, seinale elebidunak jartzeko joera hau mantendu eta sendotzeko asmorik ba al du?

Gobernuak positibozat jotzen du seinale elebidunak egotea.

Seinale bertikalak ordeztean, sistematikoki betetzen da Euskararen Legean aurreikusitakoa. Lege horrek eremu euskaldunari eta eremu mistoko herriei dagokien toponimia normalizatu eta ofizializatu zuen.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 4an

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Kontseilaria:
José Ignacio Palacios Zuasti

Nafarroa ekaitzen kalteak konpontzeko Estatuak ezarri laguntzetara bildu ezinari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroa ekaitzen kalteak konpontzeko Estatuak ezarri laguntzetara bildu ezinari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 18ko 86. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du ekaitzen kalteak konpontzeko Estatuak ezarritako laguntzetara Nafarroa bildu ezin izateari buruz. Hona Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren erantzuna:

Apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu legegileko V. Titulua, “Hondamenezko kalteak” izenekoa, aplikatu eta garatzeko Erregelamenduko 10. artikuluko b) idazatian xedaturikoa betez, 1997ko uztailaren 16, 22 eta 23an eta abuztuaren 6 eta

20an izandako ekaitzen ondoriozko nekazaritza-kalteak ikuskatu egin ziren.

Ikuskapen horietatik haxe ondorioztatu zen: kalteak puntualak zirela eta geografikoki oso sakabanatuak zeudela, eta ez zutela hondamenezko izaerarik, batez ere kontuan edukiz zenbait kasutan kazkabarrak eragindako kalteak zirenez gero, horien gaineko aseguruia egin zitekeela.

Horregatik ez zen balioespen koantitatiborik egin, kalteak lehenago aipaturiko Erregelamenduan ezarritako portzentaletaraino iristen ez zirela irizteagatik.

Horrexegatik ez zen inolako jarduketarik burutu Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren aurrean. Hala eta guztiz, datorren ekitaldirako, uholdeek eragindako kalteak aseguratu ahal izateko modukotzat jotzearen alde jardun du Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, eta baita lortu ere.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 23an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Javier Martínez Alfaro

Nafarroako Administrazio Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko aurreikusi diren jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Administrazio Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko aurreikusi diren jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 9ko 83. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Administrazio Publikoan behin-behinekotasuna murrizteko aurreikusiriko jarduketei buruz. Hona Lehendakaritza eta Barne Kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein jarduketa burutzen ari da Nafarroako Gobernuak Nafarroako Administrazio Publikoan dagoen behin-behinekotasuna murrizteko?

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan behin-behinekotasuna murrizteko asmoz Nafarroako Gobernuak aurreikusi dituen jarduketei dagokienez, Administrazioaren eta Sindikatuen artean 1995eko abenduaren 1ean sinaturiko Akordioa aipatu behar da, Administrazioaren modernizazioari eta Nafarroako Administrazio Publikoan zerbitzuko langileen 1996-1999 eperako lan baldintzei buruzkoa.

Akordio horretan, "Enplegu Publikoa" izeneko 2. idazatian, Nafarroako Gobernuaren konpromisoa agertzen da, hau da, Akordio hori indarrean dagoen bitartean enplegu publikoaren bi eskaintza onestea. Eskaintza horietan sartuko dira plan-tila organikoan une horretan dauden postu hutsen %50, zerbitzuak eskatzen dituen postu-birmoldaketak egin ondoren, eta urte horietan sorturiko postu hutsen portzentaia berbera. Portzentaia hori gutxienez 700 postutan gauzatzen da, baldin eta Akordioaren lau urteko indarraldian postu huts berriei buruzko aurreikuspena (urteko 150 bat) betetzen bada.

Nafarroako Gobernuak, 1995eko abenduaren 1ean sindikatuekin izenpeturiko Akordio hori

betetz, uztailaren 1eko 264/1996 Foru Dekretuaren bitartez onetsi zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta bere erakunde autonomoetako 1996rako enplegu-eskaintza publikoa. Eskaintza publiko horrek barnean hartzen du, gutxi gorabehera, 1996-1999 epean eskaintzekoak diren postu hutsen erdia, 1995eko abenduaren 1eko Akordioa lehen aipatu den "enplegu publiko" izeneko 2. idazatiari jarraituz.

Nafarroako Gobernuak 1998an zehar beste enplegu-eskaintza publiko bat onesteko asmoa dauka, aurrekoa osatzeko eta aipaturiko 1995eko abenduaren 1eko Akordioaren indarraldian eskaini beharreko postu hutsen guztizko kopurura iristeko.

Azken batean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa behin-behinekotasuna murrizteko xedea duten Nafarroako Gobernuaren jarduketak honako honetan gauzatzen dira, sindikatuekin izenpeturiko Akordioa betez: kasuan kasuko enplegu-eskaintza publikoak onestea, dauden postu hutsak piskanaka behin betiko bete ahal izateko; jakina, jarduketa horrek parekatua darma behin-behinekotasuna murriztea.

2.- Zein neurri hartu ditu Nafarroako Administrazio Publikoan aparteko orduak murrizteko?

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan aparteko orduak kentzeko asmoz Nafarroako Gobernuak hartu dituen neurriez denaz bezainbatean, honako hau jakinarazten dizut:

A) Aparteko orduen ondoriozko konpentsazioa orokorki ezarritako lanalditik kanpo salbuespen gisa ematen diren zerbitzuei dagokienez egiten da.

Lehendakaritza Kontseilariaren abuztuaren 17ko 116/1992 Foru Aginduaren bidez (arau hori indarrean dago gaur egun), Foru Komunitateko Administrazioaren eta bere erakunde autonomoen zerbitzuko langileek aparteko orduak egiteko mugak eta betekizunak ezartzen dira.

Xedapen horren jatorria enplegu-baldintzei buruz 1992ko otsailean sindikatuekin izenpeturiko Akordioa da. Horren bidez, Administrazioak konpromisoa hartu zuen langile bakoitzak egin beharreko aparteko orduen kopuruari zenbakizko muga jartzeko (urteko berrogeita hamar), aparteko edo premiazko lanak eta ezbeharrak edo bestelako kalteak saihestu edo konpontzeko eginkizunak salbuespena izanik.

Azken batean, Nafarroako Gobernuak izan duen borondatea enplegatuen aparteko orduak arrazionaltzea eta mugatzea da, nahiz eta saihestezina izan Administrazioaren ardurapekoak diren zerbitzuak emateko eta horiei aurre egiteko beharrekkin asmo hori bateragarri egitea. Hori beti ezin daiteke dagoen langile-plantilarekin eta beroren lanaldi arruntaren barnean egin.

B) Foru Komunitateko Administrazioan eta horren erakunde autonomoetan azken urteotan eginiko aparteko orduen konparazioak agertzen duenez, horien kopuruak ez du gora egin, eta Departamentu zein erakunde autonomo gehiengutan jaitsi ere egin dela esan behar da.

Ildo horretatik, eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan aparteko orduak egiteari loturik, ez da ahaztu behar zenbat langilez osatua dagoen hura, ezta suertatzen diren egoeren eta unean uneko beharrezan aniztasuna ere.

Horiek, nahitaez, aparteko orduak eginez estaliak izan daitezela galdatzen dute.

Hori guztia dela-eta, Gobernuaren aburuz ez da beharrezko inolako aparteko neurririk hartzea gai horretan, eta azken urteotan ekin zaion ildoari eutsi behar zaio: alde batetik, zerbitzu iraunkorrak, eta ez behin-behinekoak, ematerakoan azaleratzen diren gabeziak langile finkoekin estaltzea, eta, bestalde, enplegatuek eginiko aparteko orduen kopurua burutu beharreko eginkizunen ezaugarriengatik erabat beharrezkoa den kasuetara mugatzea.

Hori guztia jakinarazi dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek ezarritakoari jarraituz.

Iruñean, 1997ko abenduaren 26an

Lehendakaritza eta Barne Kontseilaria: Rafael Gurrea Induráin

Enplegua sortzeko plan industrial egiteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak enplegua sortzeko plan industrial egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 9ko 83. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du enplegua sortzeko plan industrial egiteari buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

Gobernuaren etengabeko ardura da enplegua Nafarroan haztea eta anitzagoa bihurtzea, eta horretarako ohiko harremanak ditu gizarte-eragileekin. Gure asmo irmoaren isla dira, besteak beste, Nafarroa osoan industrialdeak sortzeko eta lagun-

tzeko politika, Erribera gasez hornitzeko plana eta SODENaren eta CEINen jarduerak.

Horretaz guztiaz gainera, abian den Nafarroako Plan Teknologikoaren prestakuntzak enpresa, sindikatu, unibertsitate, zentro teknologiko, elkarte eta entitate askok parte hartzeko zabalik dagoena, xede du Nafarroan hurrengo urteetan arlo industrial eta teknologikoan jarduteko marko estrategikoa finkatzea, hain zuzen ere enpresen lehiakortasuna hobetzeko, enpresen sarea dinamizatzeko eta garapen ekonomikoa bultzatzeko, betiere enplegua mantentzeko eta sortzeko bideak emanez.

1993an sinaturiko akordioen ondorioz eta horiek jarraipena emateko, Gobernuak harreman etengabea du sindikatuarekin eta, beraz, ez du beharrezko ikusten Industriaren Mahaia eratzea. Nafarroako Plan Teknologikoaren Zuzendaritza Batzordean eta haren lan taldeetan parte hartzen duten sindikatuak, beraz, beren iradokizunak egin ditzakete gainerako gizarte eragile eta erakundeekin batera.

Iruñean, 1997ko abenduaren 23an.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat.

Enpleguaren egonkortasunaren eta hitzarmen kolektiboen alde estatu mailan sinatu den akordioa bultzatzeko egin diren jarduketei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak enpleguaren egonkortasunaren eta hitzarmen kolektiboen alde estatu mailan sinatu den akordioa bultzatzeko egin diren jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da. Galdera hori 1997ko abenduaren 9ko 83. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak enplegu kontuetan eginiko jarduketei buruz. Hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1.- Eragile ekonomiko eta sozial garrantzitsuek egonkortasuna eta enplegua zuzpertzeko sinatutako akordioari dagokionez, Nafarroako Gobernuak uste du Administrazio Zentralak hartutako neurriak (8 eta 9/97 Errege Dekretuak) eta Nafarroan daudenak, bai aurrekontu-neurriak, bai

neurri fiskalak, nahikoa direla kontratazio mugagabea bultzatzeko. Hori horrela dela frogatzeko ikusi besterik ez dago, Espainian, Nafarroa dela kontratu mugagabe kopuru handiena duen eskualdeetako bat, eta azken bi hilabete hauetan kopuru horren gora egiteko joera dela nagusi.

2.- Nafarroan, kontutan izan behar ditugu, ez soilik aurrekontuetatik ondorioztatzen diren jarduketak, baita gure autonomia fiskalak egiten uzten dizkigunak. Zehazki, aurrekontuan, badira Industri Zuzendaritza Nagusiaren kontusailak enplegu finko garbiaren sortzapena bultzatzeko eta baita ere Kooperatiba eta Lan Sozietate Anonimoetarako Lan Zuzendaritzarenak.

Hala ere, lan finkoa zuzpertzeko neurririk garrantzitsuenak 1996ko abenduaren 30eko Sozietateen gaineko Zergari buruzko Legearen 71. artikuluan daude. Onesten bada 71. artikulua aldatzea-hala agertzen da Sozietateen gaineko Zerga aldatzeko proiektuan-Estatukoekin eta aurrekontukoekin batera, lan egonkorraren oso lagungarri izanen diren neurri fiskal multzoa izanen dugu.

Iruñean, 1998ko abenduaren 23an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

Nafarroan instalatuta dauden enpresetan kontratu mugagabeak bultzatzeko berariazko neurriei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak Nafarroan instalatuta dauden enpresetan kontratu mugagabeak bultzatzeko berariazko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko abenduaren 9ko 83 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 31n

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Askotariko Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroan instalatuta dauden enpresetan kontratu mugagabeak bultzatzeko berariazko neurriei ri buruz. Hona Ramón Bultó Llevat Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren erantzuna:

1.- Lanpostu finkoak sortzea bultzatzeko 1998ko aurrekontu-proiektuan aurreikusi diren eta dauden neurriak, hurrengo kontusailetan jasota daude:

– Inbertsioa eta enpleguarengatiko fondo galduko dirulaguntzak (4.786 milioi)

– Kooperatiba eta lan sozietate anonimoentzako transferentziak, lanpostuak sortzeko (100 milioi).

Bi ekintzetan ematen zaio 500.000 pezetako dirulaguntza sortutako lanpostu finko bakoitzari.

Enplegu iraunkorra sustatzeko neurririk garrantzizkoenak, ordea, Sozietateen gaineko Legearen 71. artikuluan jasota daude.

Beste alde batetik, aipatu ekintza horiek bateragarri dira 8 eta 9/97 errege dekretuetan garatzen direnekin, mugagabeko kontratazioaren

ondoriozko hainbat hobari ezarri baitute gizarte segurantzaren enpresarioen kuotan.

2.- Nafarroako Gobernuaren aurrekontu-proiektuak neurri-multzo handia aurreikusi du zailtasun berezia duten taldeak laneratzea errazteko:

1. Lanbide heziketako programa berekiak (115 milioi).

2. Europako Gizarte Fondoaren prestakuntza programak (412 milioi)

3. FIP Planaren prestakuntza programak (500 milioi).

4. Enplegu ekinbideko ekintzak, Horizon kapituluak. Minusbaliatuak laneratzea (42 milioi).

5. Enplegu ekinbideko ekintzak, Now kapituluak. Emakumeak laneratzea (68 milioi).

6. Enplegu ekinbideko ekintzak, Youthstart kapituluak. Gazteak laneratzea (20 milioi).

7. Etorkinak prestatu eta laneratzeko ekintzak (10 milioi).

8. 40 urtetik goitiko langileen laneratzea (20 milioi).

9. Laneratze babesturako programa berezia (280 milioi).

10. Enplegu zentro berezientzako transferentziak, ohiko eragiketetarako (510 milioi).

11. Enplegu zentro berezientzako eta minusbaliatuentzako transferentziak, inbertsioetarako (175 milioi).

Gizarte Ongizate Departamentuan minusbaliatuentzako, etorkinentzako, eta emakume eta gazteentzako Europako ekinbideetarako dauden kontusail bereziak gehitu behar zaizkie Lan Zuzendaritza Nagusian dauden aurrekontu-kontusail horiei.

Iruñean, 1997ko abenduaren 23an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó Llevat

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina, lanbide-ordainsariak direla-eta, ingeniari, arkitekto eta aparejadoreei egin zaizkien ordainketei buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko irailaren 8an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak egindako fiskalizazio txostena, lanbide-ordainsariak direla-eta, ingeniari, arkitekto eta aparejadoreei egin zaizkien ordainketei buruzkoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 1998ko irailaren 9ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Fiskalizazio txostena, Kontuen Ganbarak egina, lanbide-ordainsariak direla-eta, ingeniari, arkitekto eta aparejadoreei egin zaizkien ordainketei buruzkoa

AURKIBIDEA

- I. Sarrera (13. or.).
- II. Helburua (14. or.).
- III. Norainokoa eta mugak (14. or.).
- IV. Ondorioak (14. or.).
- V. Gomendioak (15. or.).

Eranskina

Aztertu diren espedienteak (16. or.).

I. SARRERA

Laguntza teknikoa dela-eta, kanpoko lanbidedunek ematen dituzten zerbitzuetatik sortzen diren gastu anitz dira Nafarroako Aurrekontuetan.

Horien artean hautatu ditugu ingeniari, arkitekto eta aparejadoreek egindako obra-proiektu eta zuzendaritzekin zerikusia dutenak.

Gastu-mota horietakoak jasotzeko koderik ez denez kontabilitatean, ezin da zenbat jotzen duten zehatz-mehatz jakin. Hala ere, egin dugun azter-

ketatik atera daiteke 550 milioi inguru gastatu direla kontzeptu horiengatik, 1997ko ekitaldian.

Apirilaren 25eko 161/91 Foru Dekretuak arautzen dituen laguntza teknikoari buruzko kontratuen bidez formalizatzen da aipatu zerbitzu-ema-tea.

Lanbide elkargo ezberdinen lanbide-tarifen bidez eraendu ohi izan da lanbidedun horiei egin beharreko ordainketa, dekretuz arautzen baitziren.

Esate baterako, arkitektoez ari gara, hurrengo-
ei buruzkoak dira indarreko tarifak:

I. tarifa	Eraikuntza lanak
II. tarifa	Hirigintza lanak
III. tarifa	Mugaketak, zedarriketak, neurketak eta tasazioak
IV. tarifa	Kontsultak, peritazioak, irizpenak, ziurtagiriak
V. tarifa	Aurreko ataletan sartzen ez diren lan bereziak
VI. tarifa	Denboraren arabera tarifaturiko lanak
VII. tarifa	Arkitektoaren ebazpenetik at egindako lanak
VIII. tarifa	Enpresek kontrataturiko arkitektoen lanak
IX. tarifa	Administrazio publikoaren zerbitzuko arkitektoen lanak
X. tarifa	Administrazioarendako lanak

Kasurik arruntenean, eraikuntza-lanetan, alegia, hurrengo faseak hartuko dira kontuan tarifatzeko garaian: aurreko azterketa, aurreproiektua, oinarrizko proiektua, exekuzio-proiektua, obrazuzendaritza eta likidazioa eta obra-hartzea.

Lanak osorik agindu daitezke, aginduak fase guztiak hartzen baldin baditu, edo zatika, aginduak lanaren zati bat baino hartzen ez badu.

Hurrengoak bereizten dira, tarifa kalkulatzearen ondorioetarako:

- Eraikuntza berriko obrak: tarifa ezartzeko oinarria exekuzio materialaren kostua izanen da (agindu osoa baldin bada), obraren azken likidazioaren arabera eta industri mozkina edo administrazio gasturik sartu gabe, bider dekretuak ezarritako koefizientea -eraikitako azaleraren arabera.

Zatikako agindua bada, azterketa eta proiektuen zerbitzu-sariak, exekuzio materialaren aurrekontutik abiatuta aterako dira; eta obra-zuzendaritza eta likidaziokoak, exekutaturiko unitateen benetako kostuaren arabera.

- Handitze-, eraberritze- eta konpontze-lanak: Eraikuntza berriko obrak bezala tarifitzen dira, azalerari dagokion koefizientea bider 1,2 eginez.

Lanak Administrazioarentzat egiten badira, ehuneko 20 gutxiago kobratzen dira.

Tarifa horiek izateak eragin handia izan du proiektuak esleitzerakoan, prezioa ezin zitekeelako inoiz aldagarritzat hartu. Administrazioan, aspalditik zeuden lanbidedun hauentzako ordainketak liberalizatu nahi zituzten arauak, baina haien aplikazioa eztabaidagarria zen, lege-mailarik ez zutelako, Administrazio Publikoen Kontratuari buruzko 13/95 Legea onetsi arte. Izan ere, haren 203. artikulua ezarri baitu kontratuen prezioa finkatzeko sistemak hauek izan daitezkeela: osotasunaren gaineko prezioa; obra-edo denbora-unitateei loturiko prezioak; edo tarifaren arabera lanbide-ordainsariak aplikatzea; edo horietako batzuen konbinazioa.

Gero, lurzorua eta lanbide elkargoen alorretako neurri askatzailei buruzko apirilaren 14ko 7/97 Legeak, 1996ko Errege Dekretu Lege bat berretsi zuen hark, lehia askea erabaki du kolegiaturiko lanbideen jardunean, Lehiaren Defentsari buruzko Legeari eta Lehia Desleialari buruzko Legeari lotuta, administrazioentzako ez ezik, merkatu guztiarentzako ere.

II. HELBURUA

Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legean oinarriturik, hurrengoari ekin diogu, 1998. urteari dagokion fiskalizazio-programarekin bat: lanbide-ordainsariak direla-eta, ingeniari, arkitekto eta aparejadoreei ordainketak egiteko erabili diren irizpideen fiskalizazioari.

Hauexek dira txostenaren helburuak:

- Nafarroako Gobernuak bere departamentuetan lanbide-ordainsariak ordaintzeko erabiltzen duen sistema aztertzea.

- Irizpide orokorrik ote dagoen egiaztatu eta, hala bada, egoki aplikatzen diren.

- Orainsuko neurri askatzaileen eragina aztertzea.

Txostenak ez du kontratazioak legezkotasunari egokitzen zaizkion ala ez aztertzea helburu, beraz, kontratuen esleipenetan erabiltzen diren irizpideak ezagutzeko beharrezko egiaztapenak besterik ez dira egin.

Txostenarekin batera doaz egindako lanetik atera diren gomendioak.

III. NORAINOKOA ETA MUGAK

Helburua Nafarroako Gobernu osoa denez, espedienteen laginketa egin da, dauden mota ezberdinak, eta ahalik eta departamentu gehienetakoak, jasotzeko asmoz.

Horretarako, 13 espediente aukeratu dira, 1997.eko urtean 205 milioi egin dutenak eta sei departamenturi dagozkionak. Eranskinean ikus daitezke.

Espedienteak aztertzeaz gain, elkarrizketak egin dira departamentu ezberdinetan gai honetaz arduratzen direnekin.

Bi gauza nabarmendu behar dira:

- Gastuok jasoko dituen kontabilitate-koderik ezak kontabilitate-lerroetatik arakatu beharra ekarri digu, lanari ekiteko. Beraz, ez da gauza segurua Gobernuak kontzeptuotan egiten dituen gastu guztiak ezagutzen ditugunik.

- 1997ko gastuetatik abiatuz ere, aurreko urteetako zenbait esleipen hartu da kontuan, batzuetan, eta horietan ez dira neurri askatzaile berriak aplikatzen, oraindik.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroako Gobernu departamentuetako langileei lan hau egiterakoan eman diguten laguntzagatik.

IV. ONDORIOAK

Hurrengo ondorioak atera ditugu burutu dugun lanetik:

- Esleipenetan lehia dagoela esan daiteke, oro har, zenbait proposamen aurkezten delako.

Lehiaketa da gehien erabiltzen den esleipen-sistema. Zuzeneko esleipena ere erabiltzen da

batzuetan, aurretik aurreproiektua edo azterketa orokorra egin zaizkien proiektuetan, batez ere.

- Esleipenetan erabiltzen diren irizpideak ez dira homogeneousak ponderazio edo baliospenei dagozkienetan.

Badira prezio finkoko esleipen batzuk, eta lanbide-tarifetan oinarritutako beste batzuk. Lehengo kasuan, eskaintza ekonomikoaren balioespena guztizko baremoaren ehuneko 25 eta 50aren artean dago. Bigarrenean, tarifetan oinarritzen denez, proposamen teknikoaren balioespena guztizko baremoaren ehuneko 25 eta 60aren artean dago.

Egin diren azken esleipenetan ikus daiteke prezio finkoak ezartzeko joera, neurri askatzaile berriekin bat.

- Tarifarik erabiltzen ez denean, ez dago irizpide berririk lizitazio-prezioa ezartzeko oinarritzat erabiltzen denik, eta aurreko tarifek ematen duten oinarritik abiatzen dira.

Prezio finkoko kontratuak direnean, baldintza-orrietan ez da ageri kontratuan gerta daitezkeen aldaketak baloratzeko irizpiderik. Ondorioz, aldaketak ordaintzeko sistema oso ezberdinak ikusi ahal izan dira.

- Ematen diren aginduak ez daude beti guztiz zehaztuta. Hartara, ideien lehiaketaren eta proiektuaren erdibidean dauden aginduei antzeman ahal izan diegu. Horrelakoetan, baldintza-orriek ez dute argi eta garbi esaten lanaren edukia eta prezioa zeintzuk diren, ez eta noiz kontsidera daitezkeen ere aldaketarik izan dela.

Beste alde batetik, gauzak berez dakarrena da, proiektua oso definitua duten esleipenak izan direnean, lan-aldaketa eta prezio-desbideraketa oso txikiak agertzen dira emaitzetan.

- Instalazioei dagozkien lanbide-ordainsariak birritan ordaintzen dira, oro har. Arkitektoek proiektu osoari buruzko tarifak ezartzen dituzte (obra eta instalazioak), ingeniariak instalazioen gainean aplikatzen dituzten bitartean.

- Hainbat akats ikusi ahal izan ditugu aztertu ditugun espedienteetan. Horra:

a) Tarifak kalkulatzeko akats txikiak.

b) Baldintza teknikoaren orriak gabeko esleipenak.

c) Emateko epeak ez betetzea.

d) Lanbide-ordainsarien likidazioak aztertu direlako ez da beti erasota uzten.

e) Aldaketak egin ondoren ematea horientzako baimena.

V. GOMENDIOAK

Horiek horrela, hauxe gomendatzen dugu:

- *Proiektuak ahalik eta gehiena definitzea, geroko aldaketak ekiditeko. Emandako agindua zehaztea, definizioa osaturik gabe dagoenean, batez ere, aldaketak sor daitezkeelako burutzeko garaian. Ildo horretatik beretik, aldaketarik izan ote den jakiteko irizpideak zehaztu behar dira. Funtsean, oinarri administratibo eta tekniko egoki eta osatuak eduki behar dira, kontratuen alde administratibo eta teknikoak arautzeko.*

- *Obra-zuzendaritzak bermatu egin behar du obra zuzen egingen dela, eta zeregin hori inori kontratatzea edo norbere baliabideekin egiteko aukera aztertu behar da.*

- *Prezioak finkatzeko irizpideak ezartzea, hala lanenak, nola aldaketenak, halakorik gertatuz gero; tarifan irizpidea erabili ezean beste batzuk erabili behar direlako.*

- *Horri gagozkiolarik, portzentaiak erabiltzen badira, argi eta garbi geratu behar da proiektuari edo exekuzioari dagozkion.*

- *Instalazioak proiektatzen direnean, proiektatzen dituenari baino ez zaio ordaindu behar eta, gehienez ere, lan guztia koordinatzeko zeregina ere ordain daiteke.*

- *Xedapen orokorra egitea, proiektuak lantzerakoan, eta hala bada, obren zuzendaritzarako lanbidedunei ematen zaizkien aginduak esleitzerakoan erabili beharreko irizpideak eta haien ponderazioa zehazteko.*

- *Zorroztasun handiagoko kontratazio-espeditateak izapidatzerakoan, aipatu ditugun akatsak saihestuz: tarifak kalkulatzeko akatsak, dokumentaziorik eza, epeak ez betetzea eta aldaketak egin eta geroko baimenak.*

- *Errebisatzeko fasea izan behar da proiektuak onetsi baino lehen. Horri bagagozkio, proiektuak gainbegiratzeko bulegorik ez dagoela esan behar da.*

- *Gomendiook lan eta departamentu ezberdinei eragiten dizkietenez, Kontratazio Batzordeak koordinatu beharko lituzke haien azterketa eta ezartzea.*

- *Hartuko diren neurriek, Nafarroako Gobernuaren esleipenetan ez ezik, toki entitateenetan ere eragin behar dute, Gobernuarenak erreferentziatzat hartzen dituztelako, edo diruz lagunduta*

daudelako, hitzarmenen bidez, edo Toki Ogasunen Fondoaren bitartez.

Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta eman da txosten hau, berau izan baita arduraduna, indarreko arauak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 1998ko ekainaren 29an

Ganbarako Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**ERANSKINA: LANBIDE-ORDAINSARIAK
(1997)-LAGINA**

Departamentua	Kontzeptua	Zenbatekoa
Industria	Urban.-proi., Vianako pol.	13.952.480
Industria	Urban.-proi., Urdiain-Altsasu pol.	14.323.713
Herri lanak	Lanbide-ordainsariak - Lizarrako saihesbid.	21.918.030
Herri lanak	Lanbide-ordainsariak, Burlatako Udaletxeko proiektua	70.819.361
Herri lanak	Lanbide-ordainsariak - Azpirozko at. - kon.	35.723.842
Hezkuntza	Lanbide-ordainsariak - Azkoiengo BHI	6.124.106
Hezkuntza	Lanbide-ordainsariak - Zizur Nagusiko DBH.	13.736.347
Osasuna	Lizarrako eraikin berria	33.200.000
Osasuna	Alde Zaharreko osasun zentroa	7.518.166
Osasuna	B.A.B.O.: B fasea	2.781.322
Gizarte Ongizatea	Larrabide kiroldegiaren proiektua	17.000.000
Ingurugiroa (Hir.)	Iruñerriko Nuk. proiektua	11.750.800
Ingurugiroa (Mendiak)	Ezkaroze-Eiaurrieta antol. errebis. proi.	6.813.760
	Guztira	205.467.704

I saila:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1998ko uztailean egindako bilerak

MAHAIA

17 eta 21ean.

1998ko uztailean Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– Tuterako Griseras ikastetxe publikoko irakasleen klaustroaren idazkia. Hauxe adierazi dute: itunpeko ikastetxe pribatuetako batxilergo berriak ituntzeko asmoarekin "Unión del Pueblo Navarro"ren Gobernuak aurkeztu duen Lege proiektuaren aurka daudela.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Hauxe jakinarazi dute: Ezpeleta jauna eta Apesteguía andrea izendatu dituztela Nafarroako Foru Komunitateko Gizarte zerbitzu, hezkuntza eta osasun arloetako itunen sistema aztertzeko Batzorde Bereziko kide.

